

IÑAKI EIZMENDI «BASARRI».—*Bertsolaritzari buruz*. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1984.

Izenburuaren jabe da Basarriren prosazko lehen liburu hau. Aldizkari eta egunkarietan 1961etik 1984ra bitartean argitaratutako artikulu bilduma da, baina ez ordea nolanhiko bilduma, bertsolaritzari buruz egileak idatzi izan duenaren lan hautatuak baizik. Eta Basarriri nork uka gai hortaz dakiena?

Lehenago Xalbador, Uztapide eta Amurizak idatzi zuten beren liburuetan bertsolaritzari buruz, baina oso premiazkoa genuen Basarrirena. Hainbeste urtetan txapeldun izana, ikasienetakoa eta urte askoan plazetan aritua. Hau, gure artean nornahik dakiena da eta ez naiz hasiko hemen bere merituek errepikatzen. Liburu honetan bildu ditu sakabanaturik zituen idazlanak, bere esperientziak, eritziak, kritikak eta historia diren edo historia izango diren agiri asko. A. Zavalaren hitzazurre interesgarri batekin dator.

Esan beharrik ez dago liburu aberatsa dela bere edukinez. Lehendik ere bagenekien giputz beterriar kontalari trebea zela Basarri eta hemen ere hala nabari da bere euskera jatorra, bere hizlaxozko ahalmen berezia. Hori behintzat argi erakusten digu. Bertsozale ez den edozein euskaldunek ere gustora irakurtzeko liburua iduritzen zaigu, eta bertsozaleez ez dugu zer esanik.

*Otsalar*